

## **SMART Green Gas proiektua biometanoaren produkzioa aztertzen ari da, hiri-hondakinak eta nekazaritzako eta industriako hondakinak erabiliz**

***NORTEGASEk bazkide moduan parte hartzen du SMART Green Gas proiektuan, zortzi milioi euro baino gehiagoko aurrekontua eta CDTIko CIEN Programaren finantziazioa duen ekimenean.***

***Proiektuaren helburua da goi mailako kalitateko biometanoa eskuratzea, gas naturalaren sarean injektatu ahal dadin edo automobilgintzako errektantza moduan erabili dadin. Horretarako, Aqualiak zuzendutako enpresen partzuergo bat osatu da, non honako hauek ere parte hartzen duten: Gas Natural Fenosa, Biogas Fuel Cell, Diagnostiqa, Dimasa Grupo eta Ecobiogas. Nortegasek proiektuaren hiru jardueretako bat zuzentzen du, non teknika apurtaileak eta Biogasaren arazketa- eta balorizazio-sistema berriak garatuko diren.***

Proiektuak, 2018ko abendura arte luzatuko denak, hondakinak tratatzeko instalazioetan eskuratutako biogasaren arazketa aztertzen du, baita biogas hori goi mailako kalitateko biometano bihurtzea ere, % 95eko kontzentrazioarekin, gasaren sarean injektatu dadin edo automobilgintzako erregai moduan erabili dadin.

Helburu hori lortzeko, SMART Green Gas proiektuak biogasa ekoizteko eraginkortasun maximoko sistemak garatuko ditu, baita biometanoa tratatzeko, fintzeko eta ekoizteko prozesu berriak ere. Gainera, biometanoa kontrolatzeko, eta modu adimentsuan eta espazializatuan banatzeko prozedurak ere landuko ditu.

SMART Green Gas proiektuak parte hartzen duen partzuergoak Espainiako 4 autonomia erkidegoko hainbat ikerketa-erakunde publikoren lankidetzatza izan du; izan ere, 4 unibertsitatek eta 4 ikerketa-zentrok parte hartu dute. Unibertsitate horien artean, Madrilgo Universidad Complutense, Gironako, Valladolideko eta Santiago de Compostelako Unibertsitateak daude, eta ikerketa-zentroeiei dagokienez, Tecnalia, Icrta, Leitat eta Lequia daude. Erraz ikus daiteke aurreikusitako transferentzia teknologikoa eta ezagutzaren transferentzia tamaina handikoa dela eta ez duela mugarik.

SMART Green Gas proiektuak CDTIko CIEN Programaren (Enpresa ikerketa nazionalaren partzuergoaren) babesa du, eta FEDER funtsekin finantzatua da, Hazkunde Adimentsuaren Eskualde anitzeko Programa Operatiboaren bidez. Partzuergo osorako onartutako proiektuaren aurrekontua guztira 8.365.890 eurokoa da.